

XXVI. IGANDEA URTEAN ZEHAR (C)

Otoitza

Jainko Jauna, barkatzen eta errukitzen
agertzen duzu batez ere zeure ahalmen handia;
isur ezazu gure gainera etengabe zeure grazia,
Zuk agindutako ondasunetara lehiatuz,
zeruko zoriona irits dezagun.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Am 6, 1a. 4-7

*Zoritxarrekoak, orain lasai bizi direnak;
atzerrira eramango dituzte.*

Amos Profetaren liburutik

Honela mintzo da Jainko ahalguztiduna:
«Zoritxarrekoak, beren ustea Sionen dutenak;
eta Samariako mendiaz fidatzen direnak.
Marfilezko zizailuetan etzaten dira,
beren ohetan luze eta nagi;
artaldeko bildotsak
eta ikuiluko zekorrak jaten ari dira;
zitara soinuarekin bertso kantari,
Dabid bezala, soinu berriak asmatzen;
ardoa ontzi handitan edaten,
eta oliorik bikainenaz
beren buruak gantzutzen;
ez dute Joserren hondamendiaren kezkarik.
Horregatik, atzerrira eramango dituzte
erbestetu guztien aurretik;
honela bukatuko da mozkor-ontzien festa».

ERANTZUN SALMOA: Sal 145, 6c-7ab. 7c-8. 9-10

R/. Goretsazu Jauna, ene barrena.

Edota **Aleluia.**

Leiala da betiren beti,
ematen die eskubidea zapaldueti,
ogia gose direnei. R/.

Atxilotuak Jaunak askatzen ditu,
itsuen begiak Jaunak argitzen ditu.
Konkor daudenak Jaunak ditu zutiarazten,
zintzoak Jaunak ditu maitatzen. R/.

Arrotzak Jaunak ditu zaintzen,
 umezurtz eta alargunak laguntzen,
 eta gaiztoen asmoak eragozten.
 Errege izango da Jauna sekuletan,
 zure Jainkoa, Sion, menderen mendetan. R/.

II. IRAKURGAIA: 1 Tm 6, 11-16

Bete agindua Jaunaren agertze egunera arte.

San Paulo Apostoluak Timoteori

Anaia maite: Zuk, Jaungoikoaren gizon horrek, bila ezazu zuzenbidea, erlijioa, sinesmena, maitasuna, iraupena, ezintasuna. Ekin sinesmenaren borrokari, heldu betiko bizitzari, hartarako deitua baitzaude, eta haren aitormen bikaina egin duzu, testigu askoren aurrean.

Gauza guztiak biziarazten dituen Jaungoikoaren aurrean eta Pontzio Pilatoren auzitegian aitormen bikaina egin zuen Kristo Jesusen aurrean eskatzen dizut: bete agindua kutsurik eta hizpiderik gabe, Jesu Kristo gure Jaunaren agertze egunera arte. Agertaraziko baitu Hura bere garaian, zoriontsu eta Nagusi bakar den Jainkoak, erregeen Erregea eta jaunen Jauna denak, hilezkortasuna Berak bakarrik duenak, iritsiezinezko argitan bizi denak, inork ikusi ez duenak eta ezin ikusi ere duenak. Berari aintza eta aginpidea beti-betiko. Amen.

EBANJELIOA: Lk 16, 19-31

Aleluia: 2 Kor 8, 9b

R/. Aleluia.

V/. Jesu Kristo, aberats izanik, behartsu egin zen,
 haren behartsu izatetik zuek aberats zaitezten. R/.

*Zuk zeure bizitzan ondasunak hartu zenituen;
 Lazarok, berriz, zorigaitzak;
 orain hau pozetan dago, eta zu oinazetan.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik

Aldi hartan, Jesus honela mintzatu zitzaizen farisearrei: «Bazen gizon aberats bat, purpura eta linu finez jzaten zena, eta egunero bazkari ederrak egiten zituen. Lazaro izeneko eskale bat, aberatsaren etxe atarian etzanda egoten zen, zauriz josia; aberatsaren mahaitik isurtzen zenaz ase nahi izaten zuen, baina ez zion inork ematen; zakurrak berak etortzen zitzaizkion eta zauriak milikatzen zizkioten.

Honetan, hil zen eskalea, eta aingeruek Abrahamen altzora eramane zuten. Hil zen aberatsa ere, eta ehortzi zuten. Hilan lekuan oinazetan zegoelarik, begiak jaso eta urrutian Abraham ikusi zuen, eta honen altzoan Lazaro; eta deiadarka esan zuen: "Aita Abraham, erruki zakizkit, eta agindu iezaiozu Lazarori, bere behatz muturra uretan busti eta freska diezadala mihia, oinaze gorritan bainago su-gar honetan".

Abrahamek esan zion: "Seme, oroi zaitez, zuk zeure bizitzan ondasunak hartu zenituela; Lazarok, berriz, zorigaitzak; horregatik, orain hau pozetan dago, eta zu oinazetan. Gainera, gure eta zuen artean leize handia dago, eta nahita ere ezin joan da inor hemendik zuengana; ezta hortik guregana ere, ezin etorri da inor".

Aberatsak orduan: "Arren, aita, bidal ezazu Lazaro nire aitaren etxera, bost anaia baditut eta, haiei hemengo berri ematera, berak ere oinaze leku honetara etor ez daitezen".

Eta Abrahamek: "Badituzte Moises eta Profetak; entzun diezaietela".

Baina aberatsak berriro: "Ez, aita Abraham; baizik eta hildakoren bat joango balitzaie, damutuko lirateke".

Abrahamek erantzun: "Moisesi eta Profetei entzutzen ez badiete, ez dute sinetsiko ezta hildako bat biztuta ere"».

Oparigaien gainekoa

Jainko guztiz errukitsua,
atsegin dakizula gure eskaintza hau
eta berak ireki diezagula
bedeinkapen guztien iturria.
Jesu Kristo.

Jaunartze ondorengoa

Sakramentu honek, Jauna,
gure gorputz-arimak berri ditzala,
Kristoren heriotza iragartzen dugunok
Haren nekaldian bezala
Haren biztueran ere parte izan dezagun.
Jesu Kristo.